



Elorrioko udala

IRAGARKIA

Elorrioko Udalak 2025eko Elorrioko udalerrian gazteek alokairuko etxebizitzak eskuratzeko dirulaguntza deialdia onartzea (2025-00146 espediente)

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko otsailaren 21ean egindako bilkuran, 2025eko Elorrioko udalerrian gazteek alokairuko etxebizitzak eskuratzeko udalaren dirulaguntza deialdia onartzea erabaki zuen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean BAOn argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean BAOn argitaratua).

Elorrio, 2025eko martxoaren 21a

Julene Lazkano Zenitagoia

Alkatea



ELORRIOKO UDALAK 2025EKO ELORRIOKO UDALERRIAN GAZTEEK ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAK ESKURATZEKO EMATEN DUEN DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.- Deialdia.

Honen bitartez, "Gazteei zuzendutako Etxebizitzaren alokairurako laguntzak" izeneko dirulaguntzen deialdia egingo da, Dirulaguntzen Udal Ordenantza Nagusian ezarritakoa betez, arreta berezia jarritz Ordenantza horretako VIII atalean, 2010eko otsailaren 11an Udalbatzak behin betikoz onartutakoa eta 2011ko maiatzaren 10eko 86. zenbakiko BAOn argitaratutakoa. Era berean, aipatutakoa 2011ko abenduaren 28ko Udalbatzako Akordio bidez aldatu zen, 2012ko otsailaren 10eko 29. zenbakiko BAOn eta Udalaren webgunean argitaratua izanik. Laguntzak eskabideak aurkezteko hurrenkeraren arabera emango dira, betiere behar bezala beteta badaude eta espedientea osatuta badago aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoa agortu arte.

Deialdi honetan aurreikusi gabe dauden kasuetarako, Udal Ordenantza aplikatuko da.

2.- Deialdiaren erregimenaren helburua eta justifikazioa.

Honako hauek dira deialdi honen helburuak:

- Gazteei laguntza ematea emantzipazio-prozesua errazteko eta helduarora hobeto heltzeko.
- Elorrio osoan alokairuko etxebizitzak eskuratzeko aukera ematea gazteei.

3.- Aurrekontua.

Deialdi honetarako, guztira 5.000 euro aurreikusi dira 2025erako. Kopuru horri Udal Aurrekontu Orokorreko 3341.480.22 aurrekontu-partida aplikatuz egin ahal izango zaio aurre.

Aipatutako kopurua handitu egin daiteke Gazteria sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatu eta agortu ez diren aurrekontu-baliabideen arabera, edota laguntzak ebatzi aurretik onar daitezkeen aurrekontu aldaketetatik. Horrelakorik gertatuz gero, dagokion ebazpen bidez emango da horren berri.

4.- Xedea.

Laguntza hauen xedea da ohiko egoitza alokairuko etxebizitza duten 25 eta 29 urte bitarteko gazteen alokairu gastuak diruz laguntzea, biak barne. Elorrio alokairuko etxebizitza bat dutenak

Dirulaguntza oinarriotan ezarritako baldintzen arabera emango da, onuradunak 2024 urtean izandako alokairu-gastua kontuan hartuta, betiere, baldintza horiek tarte edo epe horretan mantendu badira.

Alokairuaren kostutik kanpo geratzen dira aparkalekua edo trastelekua bezalakoetatik eratorriak, bai eta komunitate-gastuak ere. Gastu horiek banakatuta agertu beharko dute alokairu-kontratuan. Kontratuan sartuta badaude eta bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten ez bada, 30 euroko balio finkoa deskontatuko zaio hileko kostuari horrelako kontzeptu bakoitzarengatik.

5.- Onuradunak.



Indarrean dagoen aurrekontu ekitaldiaren kargurako laguntzen onuradunak oinarri hauek argitaratzen diren egunean eta diruz lagundu daitekeen epean Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorreko Ordenantzaren 2. kapituluaren modu orokorrean zehaztutakoa, 38/2003, dirulaguntzen orokorra legearen 13. Artikuluaren zehaztutakoa eta ondorengo baldintza zehatzak betetzen dituztenak izango dira:

a) 2024ko abenduaren 31n, 25 eta 29 urte bitarteko, biak barne, gazte emantzipatuak izatea, eta aldi berean alokairu-kontratu baten titularrak izatea. Logelen azpierrentamendua ez da onartuko.

b) Laguntzaren onuradun batek ere ez izatea bere jabetzako etxebizitzarik, salbu herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titularkide ez bada, beti ere titularkidetasun horren ehunekoak %50a gainditzen ez badu eta etxebizitza-partaidetzen balioa 75.000 eurotik gorakoa ez bada. Eskatzailearen ardura izango da ondasunen balioa egiaztatzea (jabetzan dituen ondasunen tasazioa egitea). Era berean, salbuetsita geratzen dira indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak, baldin eta etxebizitza utzi behar izan badute segurtasun arrazoiengatik.

c) Onuradunek, familia unitateen kasuan, bertako kide guztiek diruz lagunduko den etxebizitzan erroldatuta egon behar dute. Era berean, Elorrioko udalerrian egon beharko dira erroldatuta, gutxienez urtebete, etenik gabeko antzinasunarekin eskaera aurkezten den unean, edo bost urte jarraian.

Diruz lagundu daitekeen epean, kontratuaren titularrak eta beraien kargura dauden adin txikikoak baino ezin izango dira egon etxebizitzan erroldatuta.

Erroldan altak edo bajak badaude, behar bezala justifikatuta egon beharko dute, eta dagokion titulartasun aldaketa jasota geratu beharko da etxebizitza horren alokairu-kontratuan.

Kontratua hasi baino lehenagoko datarekin, kontratuaren titularrak ez diren pertsonak etxebizitzan erroldatuta baleude, kontratuaren titularrek erroldako baja-eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, diruz lagundu daitekeen epearen barruan. Borondatezko baja pertsonalik ez da onartuko.

d) Diru-laguntzen onuradunen diru-sarrerak ezin izango dira 28.000 euro gordin baino gehiago izan urtean. Familia-unitateen kasuan, diru-sarreraren gehieneko muga urtean 34.000 euro gordin izango da.

Urteko diru-sarrera gordintzat joko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarri orokorra gehi lan etekinei aplikatutako hobariak, eta eskaerak aurkezteko unean indarrean dagoen zerga-ekitaldiko zergagarria ez den beste edozein dirusarrera ez-kontributiboa ere.

f) Diru-sarreraren osaketari dagokionez, betetako azken zerga-ekitaldiko kapital errentetatik eta ondare-irabazietatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da izan 601,10 eurotik gorakoa urteko.

g) Diru-laguntzen onuradunek Elorrioko Udaleko eta beste edozein administrazio publikoetako zergak, tasak, arielak eta zehapenak ordainduta izan behar dituzte.

h) Etxebizitzan bizi diren pertsonen artean ezin izango da egon inongo familia-loturarik izan onuradunen eta errentatzailearen artean, odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailara arte.

Elorrioko udalerrian gazteek alokairuko etxebizitzak eskuratzeko dirulaguntzaren deialditik kanpo geratzeko arrazoa izango da dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko eragozten duen zehapen penal edo administratiboa izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistarik Gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen



edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkerian erortzeagatik gertatutakoak ere.

6-Onuraduna izateko debekua

Ezingo dute deialdi honetan parte hartu dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dien zehapen administratibo edo penalik dutenek, ez eta horretarako ezgaitzen dituen legezko debekurik dutenek ere. Bereziki, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan zehaztutakoak.

Ezingo dira onuradun izan administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriari egiteagatik zehazpen irmoa jaso duten pertsona edo entitateak.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenak eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarritakoak, xedatzen dituzten betebeharrak betetzen ez dituztenak.

Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiboa izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean egotea, Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenaren edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkerian erortzeagatik gertatutakoak barne.

7.- Etxebizitzek bete beharreko baldintzak.

1. Diruz lagunduko den etxebizitza Elorriko udalerrian kokatuta egon behar du.
2. Salbuetsita geratuko dira:
 - a. Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.
 - b. Azpierrentak.
 - c. Logelen arrentamenduak (logela eskubidea).
3. Etxebizitzaren errentamenduak hilean 600 euro baino gutxiago izan behar du.

Edozelan ere, alokairu kontratuen iraupena Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/94 Legean ezarritakoaren menpe egongo da. Ez da onartuko urte bat baino iraupen txikiagoa duen kontraturik ezta denboraldiko kontratuak ere.

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea indarrean dagoenetik, nahitaezkoa da herriko alokairu kontratuak erregistratzea, eta baita alokairu horietatik eratorritako fidantzak ere, Eusko Jaurlaritzak Bizilagun zerbitzuaren bitartez bideratutakoak.

8.- Dokumentazioa

1. Eskatzaileek, I. eranskin gisa agertzen den instantziarekin batera, behean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Eskatzaile bakoitzak eskaera bat bete beharko du.
 - a) Erantzukizunpeko aitortpena, honakoak adieraziz: alokairuko etxebizitzan bizi d(ir)en edo biziko d(ir)en pertsona(k), deialdiaren baldintza zehatzak betetzen dituztenak.



b) Zinpeko deklarazioa edo agiria Ogasun Sailean eta Gizarte Segurantzaren zorro ez duela egiaztatzen duena, eta xede bera finantzatzeko beste entitate edo erakunde batzuei eskatutako edo eskatzea aurreikusi diren dirulaguntzak zeintzuk diren zehaztuko direnean, hau da: erakundearen izena eta jasotako dirulaguntza edo eskatutakoa.

c) Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren NANA edo egoitza-txartela.

d) Hirugarrenen alta behar bezala beteta. Agiri hau paperean edo online egin daiteke.

<https://www.elorrio.eus/eu-ES/lzapideak/Oriak/procedimiento-detalle.aspx?idt=295cb091-c85c-4be0-b4f4-c485119cdb35>

e) Estatu mailan inolako etxebizitzaren jabe ez izatearen ziurtagiria, jabetzaren erregistroak emandakoa, elkarbizitza unitatean bizi diren 18 urtetik gorako kide guztientzako laguntza eskaera eman baino hilabete baino lehenagokoa.

Etxebizitza baten edo batzuen titularkide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:

- a. Oinordetza kasuan, oinordetzaren onarpen-agiria eta banaketa-eskritura.
- b. Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura
- c. Kasu bietan, partaidetza-salmenta bada: eskualdatze-eskritura.

f) 2024. urtean zehar alokairuaren ordainketaren bankuko egiaztariak.

g) Indarrean dagoen eta diruz lagundu daitekeen epearen barruan, etxebizitzaren alokairu-kontratua, Bizilagunen erregistratuta. Laguntza eskatzen duten 25 eta 29 urte bitarteko pertsona guztiek kontratu horren titularrak izan beharko dute. Seme-alabek edota mendekotasuna duten pertsonak euren kargura dituzten izatezko bikoteak edo senar-emazteak salbuetsita geratuko dira.

h) Azken zerga-ekitaldiko diru-sarreraren ziurtagiria, A edo B kasuen arabera:

A) PFEZ aitortzeko derrigortasuna bada edo dagoeneko aitortu bada, honakoak agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskaera hau aurkezteko unean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken zerga-ekitaldian aurkeztutako aitortpena. Familia unitateen kasuan, bertako kide guztien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aitortpena.
- Zergapekoak ez diren prestazioak jasoz gero, prestazio horien ziurtagiria.

B) PFEZ aitortzeko derrigortasunik ez dagoenean, honakoak eman beharko dituzu. Familia unitateen kasuan dokumentazio hau bertako kide bakoitzarena izango da:

Kasu guztietan:

1. Foru Ogasunaren ziurtagiria, ekitaldi honetarako (eskaera hau aurkezteko unean betetako azken zerga-ekitaldia) PFEZ aitortpena aurkezteko derrigortasunik ez izatea egiaztatzen duena.

2. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak emandako Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria.

Horrez gain, beharrezkoa den kasuetan:

3. Soldatuko langileen kasuan, enpresak edo enplegu-emaileak emandako agiria, kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrera gordin guztiei buruzkoa, ekitaldi horri dagokiona.

4. Pentsiodunen edo bekak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenen kasuan (Gizarte Ongizateko laguntzak barne), ekitaldi horri dagozkien ziurtagiriak.



Eskatutako dokumentuak Udalaren esku baleude, eskatzailea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53. artikuluko d) idatzatiazioan ezarritakoaren menpe jarri ahal izango da; betiere, dokumentu horiek aurkeztu edo jaulki zireneko organo edo egoitza eta eguna adierazten badira, eta ez badira bost urte baino gehiago igaro dagokion prozeduraren amaieratik.

9.- Aurkezteko epea eta lekua.

1. Eskakerak aurkezteko bide hauek daude:

- On-line. Elorrioko Udaleko egoitza elektronikoen bitartez. Horretarako, baliodun agiri elektronikoa izan beharko du eskatzaileak
- Zuzeneko: Elorrioko Udaleko erregistro orokorrean (HAZ).
- 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako bideen bitartez ere aurkeztu ahal dira.

Edozein galdera edo zalantza argitzeko hurrengo helbide elektronikora idatzi daiteke: iturri@elorrio.eus.

2. 2024ko laguntza-deialdirako eskabideak aurkezteko epea 2025eko irailaren 1a eta 30a bitartean izango da, biak barne.

3. Eskakerak ez baditu deialdiaren baldintzak betetzen, interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko gehieneko epe luzaezinean baldintza horiek betetzeko, eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaera bertan behera utzitzat joko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako terminoetan idatzitako alde aurretiko ebazpen bidez.

10.- Prozedura, instrukzioa eta erabakia

Eskariak aurkezteko epea amaituta, eskariak aztertuko dira eta premiazko eskea egingo zaie interesdunari hamar eguneko epean falta den dokumentazioa aurkez dezaten. Eta jakinaraziko zaie okerrak zuzendu ezean eskaera atzera egindakotzat joko dela.

Aurkeztutako eskabideak aztertu ondoren, Gazteria Sailak txosten bat egingo du, eta, txosten horretan, gutxienez, honako hauek jasoko dira: ezetsitako eskabideak, ezesteko arrazoiak, baietsitako eskabideak, lortutako puntuazioa, eman beharreko laguntzen zenbatekoa eta oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak betetzea.

Organo instrukzio-egileak ebazpen-proposamena egingo dio organo emaileari, alkateari alegia, baina, kasu horretan, Tokiko Gobernu Batzarraren esku utziko du dirulaguntzen izapidetzea.

Instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori interesdunari jakinarazi beharko zaie deialdiak ezartzen duen moduan, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

Birformulazio edo uko egite kasurik egon ezean, emandako diru-laguntza onartzen dela ulertzen da.

Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emango dio, eta erabakiaren kontra Udaleko alkatearen aurrean berraztertze errekurtsoa tartekatze aukera egongo da, edo baita zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa tartekatze Bilboko dagokion auzitegian. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.



Fase honetan Elorrioko Udalak, instrukzio organoaren bitartez, aurkeztu diren proposamenak konparatu eta baloratu beharko ditu, onuraduna nor izango den zehazteko emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpidea kontuan hartuz

Laguntzak eskabideak aurkezteko hurrenkeraren arabera emango dira, betiere behar bezala beteta badaude eta espedientea osatuta badago aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoa agortu arte.

11.- Ordainketa eta justifikazio prozedura.

Aitortutako dirulaguntzaren izaera pertsonala da, familia-unitateen kasuetan izan ezik. Azken hauen kasuan familia-unitatearen kide guztien diru-sarrerak kontutan hartuko dira.

Familia-unitatea legez bananduta ez dauden ezkontideek osatzen dute, bai eta dirulaguntza jasotzeko eskubidea ematen duen etxebizitzan diruz lagundu daitekeen aldi errolatuta dauden izatezko bikoteek ere.

Banakako pertsonen kasuan, dirulaguntzaren zenbatekoa 100 €-koa izango da hilean, baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonentzat.

Familia-unitateen kasuan, dirulaguntzaren zenbatekoa hilean 200 €-koa izango da, betiere familia-unitateko kideek baldintzak betetzen badituzte.

Familia-unitaterik ez dagoen kasuetan eta, errentamendu-kontratuan dirulaguntza jasotzeko eskubidea duen errentari bat baino gehiago egotekotan, diru-sarrerak banaka baloratuko dira.

Familiako kideren batek baldintzak betetzen ez baditu, baloratu beharreko diru-sarrerak dirulaguntzaren adin-tartean dagoenari dagozkionak izango dira.

Dirulaguntzak ordaintzeko prozesua:

-Ordainketa bakarra egingo da.

-Ofizios egiaztatuko da elkarbizitza unitatea osatzen duten pertsonak alokatutako etxebizitzan errolatuta daudela.

-Aipatutako dokumentazioa eta onuradunen betekizunak egiaztatu ostean laguntza ordainduko da, Aurrekontuaren Betearazpen Arauak adierazitakoaren arabera.

12.- Dirulaguntza jasoko duten pertsonen betebeharrak.

Dirulaguntza honen onuradunek Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorreko hirugarren kapituluari jasotako xedapen orokorrak bete beharko dituzte.

13.- Arau-hausteak, zehapenak eta itzulketak

Arau-hausteak egitea eta zehapenak ezartzea, bai eta dirua itzultzeko arrazoiak ere, Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzari, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautuko dira



14.- Bateragarritasuna.

Deialdi honetan parte hartzea bateragarria da beste erakunde batzuek kontzeptu beragatik emandako dirulaguntzak aldi berean jasotzearekin, betiere horien guztien baturak etxebizitzaren alokairuaren kostua gainditzen ez badu.

Deialdi honetatik baztertuta geratzen dira BIZIGUNE programaren bitartez etxebizitza alokatuta duten eskatzaileak eta ASAP programaren bitartez etxebizitza alokatu duten eskatzaileak

15.- Argitarapena.

Deialdi hau BAO-n, Udalaren webgunean eta udaletxeko Iragarki Taulan argitaratuko da eta indarrean jarriko da BAO-n argitaratu eta hurrengo egunean.

16.- Datu-babesa.

Elorrioko Udalak (aurrerantzean, "Udala"), IFZ: P-4803900-B, eta helbidea: Gernikako Arbola plaza 1 (48230), Elorrión (Bizkaia), emandako datu pertsonalak erabiliko ditu dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko. Tratamendu hori legitimatzen duen oinarria da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren ondoriozko legezko betebeharrak bat betetzea.

Datu horiek behar-beharrezkoak diren zerbitzuak ematen dituzten hirugarrenei baino ez zaizkie jakinaraziko, eta ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharra edo interes publikoa izan ezik.

Elorrioko Udalak datu pertsonalak gordeko ditu erantzukizunen bat eska dakioken legezko epean.

Dirulaguntzen deialdi honetan eskatutako datuak behar-beharrezkoak dira lehen adierazitako helburua behar bezala lortzeko; beraz, datu horiek eman ezean, Udalak ezin izango du bermatu prozeduran behar bezala parte hartuko duenik.

Nolanahi ere, interesdunak datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango ditu, alkatea@elorrio.eus helbidera idatzizko eskaera bidez. Interesduna harremanetan jarri ahal izango da Udaleko Datuen Babeserako Ordezkariekin (DPO), helbide elektronikoa honetan: dpo@elorrio.eus

Era berean, jakinarazten dizugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea duzula.

17. Klausula gehigarria

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan Oinarri Erregulatzaileretan ezarritakoa izango da aplikagarria.

Halaber, 38/2003 Dirulaguntzen Lege orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio.

18. Araubide juridikoa



Oinarri hauetan aurreikusi ez denerako honako hauetan aurreikusitakora joko da: Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorra (2010eko maiatzaren 10eko 86 BAO), azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Orokorra, eta 887/2003 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten duena.

19. Elkarreragingarritasuna

Elorrioko Udalak dokumentuak eta informazioa eskatu ahal izango dizkie beste administrazio batzuei, elkarreragingarritasunaren esparruan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 5. artikulua arabera. Horren helburua da eskatutako dirulaguntzen kudeaketa erraztea eta administrazio-izapideen eraginkortasuna bermatzea.

Udal honek beste administrazio batzuetan norbere datuak eta dokumentuak kontsulta ez ditzan eskubidea du eskatzaileak. Eskubide horretaz baliatzea erabakitzen badu, behar bezala arrazoitutako idatzia egin beharko du, eta zergatia adierazi. Behar den moduan arrazoi gabeko erabateko ezetzik ez da onartuko.

Datuak eskatzearen aurka egiteko idatzia dirulaguntzak eskatzeko epean aurkeztu behar du.

Oposiziorako idatzian honako datu hauek zehaztu behar ditu behintzat, eskatzaileak:

- Eskatzailearen datuak.
- Zer dokumentu edo datuei egiten dien aurka zehaztu.
- Informazioa kontsultatzearen aurka egiteko arrazoiak adierazi eta haien justifikazioa.

Eskatzaileak baliozko oposizio arrazoitua aurkezten badu, Administrazioak oposizio hori ebaluatuko du, eta erabakiko du ea egokia den beste administrazio batzuei dokumentuak eskatzen jarraitzea. Oposizioa ezesten bada, dirulaguntza izapidetzeko behar den informazioa eskatuko da.

Dirulaguntzen eskaerak sinatzeak berekin dakar dirulaguntzaren oinarrietako baldintzak onartzea, eta dokumentuak kontsultatzearen aurka egiteko eskubidea aitortzen du, bai eta oposizio hori dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epearen barruan modu arrazoituan aurkezteko betebeharra ere.

Arestian adierazitakoa gardentasunaren eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak arautuko du, bereziki, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legeak eta (EB) 2016/679 Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak.

Azken xedapenak

Lehenengoa.- Baimenduta dago alokairuko etxebizitza sustatzeko Programa honi buruzko informazioa eta zabalpena emateko materiala argitaratzea.

Bigarrena.- Eskaerak Elorrioko Udalaren bitartez tramitatzeak oinarri hauek onartu egiten direla esan nahiko du.

KONTUAN IZANDA aipatutako araudia bat datorrela Elorrioko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzarekin.



Elorrioko udala

KONTUAN IZANDA aipatutako araudia bat datorrela azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak ezartzen duenarekin.

Aurrekontua betearazteko udal araudiko 30.4.c) eta 33 puntuek ezartzen dutenarekin bat etorritik.

Gastuaren faseetako eskumenak arautzen dituen Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 41. artikuluan adierazitakoarekin bat eginez.

Ikusirik aurrekontu-izendapena dagoela deskribatutako diru-laguntzen programa aurrera eramateko, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren IV. Tituluan deskribatutako nahitaezko kontu-hartze kontrola egin dela.



**I.ERANSKINA
ESKABIDE-ORRIA
DIRULAGUNTZA, ETXEBIZITZAREN ALOKAIURAKO
ELORRIOKO GAZTEEI ZUZENDUTA.**

ESKATZAILEA

Izen-abizenak:		NAN/AIZ
Helbidea	PK:	Udalerrria:
Telefonoak:		Helbide elektronikoa

Erantsi beharreko dokumentazioa

- ☐ Erantzukizunpeko adierazpena beteta eta sinatuta. (II. Eranskina)
- ☐ Eskatzaileraren NAN edo egoitza-txartela.
- ☐ Etxebizitzarik ez duela edo kotitularkidetasuna egiaztatzeko agiriak, oinarrietako 7. c) artikuluan ezarritakoaren arabera.
- ☐ 2024. urtean zehar alokairu-ordainketen bankuko egiaztagirak.
- ☐ Indarrean dagoen eta diruz lagundu daitekeen epearen barruan, etxebizitzaren alokairu-kontratua, Bizilagunen erregistratuta.
- ☐ Itxitako zerga-ekitaldiko diru-sarrerak egiaztatzeko agiriak, oinarrietako 7. f) artikuluan ezarritakoaren arabera.

DIRULAGUNTZA SARTZEKO KONTU-ZENBAKIA:

IBAN				ERAKUNDEA				AGENTZIA				K.C.		K/KORRONTEA											
E	S																								

Datuen babesa

Datuen babesari dagokionez, dirulaguntza deialdi hau arautzen duten oinarrien hamaseigarren atalean ezarritakoaren arabera arautuko da.

Elorrión, 2025eko _____ ren ____ (e)(a)n.
Sinadura



II ERANSKINA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Nik,jn./andreak,
..... NAnduna, honen bidez, **ADIERAZTEN DUT:**

1.- Diruz lagundu daitekeen aldian, Elorrioko
..... -an dagoen etxebizitzan
honako pertsona hauek bizi IZAN direla

NAN /AIZ	Izen-abizenak

2.- **EZ** dudala beste erakunde batzuek emandako dirulaguntzarik jaso, ezta jasoko ere,
kontzeptu eta aldi beragatik.

EDO

2.- Xede berbera finantzatzeko hurrengo diru-laguntzak eskatu(ko) edo jaso ditudala:

1.
2.
3.

3.- Egunean ditudala beste administrazio publikoetako zergen, tasen eta zehapenen
ordainketak.

4.- Etxebizitza alokatzeko dirulaguntzaren eskatzaile naizen aldetik, deialdiko baldintzak
betetzen ditudala.

5.- Ez nagoela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3 zatiek dirulaguntzak
jasotzeko bateraezintasun ez eta debeku-kausatzat finkatzen dituztenetako batean ere.

6.- Ez dudala administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea
urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriari egiteagatik zehazpen irmorik.

7.- Betetzen ditudala Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, Emakumeen eta
Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko
Legearen testu bateginak ezarritako betebeharrak guztiak

Elorrioren, 2025eko _____ren __ (e)(a)n.

Sinadura